


# STEEEILAS



## Irakaskuntza pribatua

Depósito legal: BI-2729/00

2009ko martxoa

41. zenbakia

**EGINdakoa  
IKUSIta**

...

**EZ GAUDE  
KON FoRME!**



## 4 urte noraez **EAn**

- Badira dagoeneko 15 hilabete hitzarmenik gabe...
- Langileen estresa
- Eskola laiko eta mistoaren alde
- AZPkoen txokoa
- LH: inor ez da sobratzen
- Afektuak, gorputza, sentimenduak, desioak, emozioak...berdintasunezko harremanetan
- Kulturarteko hezkuntza
- Berriak

ARABA: Fuente de los Patos, 2, 3.C  
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)  
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)  
NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)

01001 Gasteiz  
48003 Bilbao  
20015 Donostia  
31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04  
☎ 944 10 02 98  
☎ 943 46 60 00  
☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02  
☎ 944 10 13 60  
☎ 943 45 36 27  
☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org  
bizkaia@stee-eilas.org  
gipuzkoa@stee-eilas.org  
nafarroa@stee-eilas.org

## aurkibidea

### Irakaskuntza Pribatua

Badira 15 hilabete hitzarmenik gabe...	2
Langileen estresa	3
Eskola laiko eta mistoaren alde	4
AZPkoen txokoa	5
LH: inor ez da sobratzen	5
Afektuak, gorputza, sentimenduak, desioak, emozioak.....berdintasunezko harremanetan	6
Kulturarteko hezhuntza	7
Berriak	8

## Badira dagoeneko 15 hilabete hitzarmenik gabe... Eta negoziazio kolektiboa?

EAEko araututako irakaskuntzan –gehien bat arautuak- lan baldintzak erregulatzen dituzten bi hitzarmenitarako negoziazio kolektiboaren panorama argitu beharrean gero eta ilunago dagoela dirudi, hau da bai giza ekimenezkoak deituriko ikastetxeena bai ikastolena.

Bi eremuetan negoziazio mahaiak bizirik daude, baina erritmo desberdinez; hala ere, bi kasuetan akordio baterako adostasuna urrun ikusten da.

Giza ekimeneko irakaskuntzako lan hitzarmenerako mahai negoziatzailea birritan bildu da aurten, baina inondik inorako emaitzarik gabe. Beharbada, aurreko Administrazioarekin 14 milioi eurotan oinarritua eta in extremis sinatutako Akordioaren berri izan bezain pronto sindikatuok beraien esanetara geldituko ginela pentsatuko zuen patronalak eta harridura jabetu da beraiez. Agian momentu politiko egokiaren zain daude Akordioa airean dagoela baitakite.

Denbora pasa eta sindikatu batek edo bestek horren positibotzat jotzen zuten akordio horren inguruko diskurtsoa aldatu behar izan dute. Horrela, hasieratik bai forman bai mamian kontra egin genuen sindikatuok arrazoi genuela gero eta argiago ikusten da.

Gaurkoz sindikatuok egin ditugun proposamenen aurrean ez dugu patronalen aldetik inolako erantzunik jaso eta negoziazio prozesua ez da hasi eta ez du hasteko datarik.

Zailtasunak asko dira eta neurri handi batean era paradoxikoan, finantziario Akordiotik sortuak. Zer dela eta onartu behar dute ekonomikoki funtzio bat (tutoretzarena) beste batzuk aitortzen ez diren bitartean? Zergatik aitortza hori ez dagokie lanbide heziketako gure lankideei? Ez al daude nahiko deshologaturik irakasleak ez diren kolektiboak, 0.5 puntuko osagarriko eskubidetik kanpo geratzeko?

Akordiotik harago, eskaintza patronalak aurreko urtetan erori den akats berean erori da aurten: ez du jasotzen batere ikastetxeetatik langileek ezarri dituzten lehentasunak. Horrela, ez ditu ez lanaldia ezta lansariak hobetzen ez-irakasleei dagokienez; ez du lanaldi lektiboa murrizten; ez du DBH1-DBH2rekin berdintzen; ez du hobekuntzarik ekarri kontratazioan, formazioan... eta jarraitzen du aurreko hitzarmeneko hainbat atal bete gabe (antzinatasuna kobratzea, jarraipeneko saria eta irakasleon asteko lanaldia arautu.

*Geure gairak dira*

# EEILASSTEEILASSTEEILASSTEEILASSTEEILASSTEEILASSTEEILASSTEEILAS LANGILEEN ESTRESA

OMEk argitaratutako lan osasunaren inguruko gomendioetan (Espoo 1999), estresa langileen osasunerako arazo nagusienetako bat dela onartzen da. Estresatuta dagoen langile bat, gutxiago produzitzeaz aparte, laneko segurtasun gutxiago ere izaten du.

Laneko estresa, pertsona batek bere gaitasun, jakintasun edo funtzioekin bat ez datozen laneko presio eta eskakizun aurrean izan dezakeen erreakzioa da. Hau, langileak ikuskatzaile edo lankideengandik laguntzarik jasotzen ez duela sentitzen duenean areagotu egiten da.

Lan giroan presio maila bat izatea saihestezina dela eta presio pixka bat motibazioa eta atentzioa mantentzeko edota lana egiteko zein ikasteko lagungarria izan daitekeela egia bada ere, presio hau gehiegizkoa edo jasanezina denean langileen osasuna seriooki kaltetuta atera daiteke. Muturreraino eramanda arazo psikologiko edota psikiatrikoak ere sor daitezke. Laneko emaitzak nolakoak izango diren aipatu gabe.

Estresa ez dago gaixotasun profesionalen zerrendan, baina estresaren ondorioak lan istripu bezala onar daitezke: Estresa lanean gertatutako istilu larri baten ondorioa denean, laneko jazarpena kasu; estresaren ondorioz, lantokian eta lan ordutegian nerbio-krisiak edo antzerakoak ematen direnean, (kasu honetan, mutuek arazoak jartzen ditu, baina erreklamatu daiteke); estresaren ondorioz osasun arazoak sortzen direnean (kasu hauetan mutuek ez dute sekulan onartu nahi, beraz, langileak lana estres horren sortzaile bakarra izan dela epaiketara frogatu beharko luke)

Mutur hauetaraino ez iristeko prebentzio lana ezinbestekoa dela ez daukagu zalantzarik. OMEen ustetan laneko estresaren sorburuen artean hauexek daude: lan antolaketa txarra, exigentzia maila altuegia, laguntza falta, ezagupen desoreka, epe zorrotzegiak, lanarekiko segurtasun falta (galde diezagun

ordezkoei), lantokian mailaz igotzeko aukera eza, sozialki baloratu gabeko lanbidea, beste pertsonen eta beren arazoan ardura izatea, erabakiak hartzeko parte hartze gutxi, lidergo ez egokia, erakundearen helburu eta estruktura ez egokia eta dudarik gabe identifikatuta sentituko ginen eta abar luze bat. Prebentziorako gomendio guztiak pauso berdinetan oinarritzen dira: egoera ikertu eta arrisku ebaluazioak egin, jarduera planak elaboratu eta martxan jarri eta neurri zuzentzaileak ezarri.



Eskolak gero eta lan zama gehiago bere gain hartzen jarraitzen duela eta errekurtsioei dagokienez, laguntzaile irudietan mozketarik besterik ez dugu ikusten edo epe motzerako programak non orain ase, bihar gose besterik ez den lortzen.

STEE-EILASen gure langileriaren estresa prebenitzeko modu asko dagoela uste dugu, baina neurri guztiek giza zein materialak diren errekurtsioen igoera behar dute. Laneko gestio on bat eta antolakuntza egoki bat laneko estresa saihesteko eta gure eskolan inbertitzeko modurik hoberena da.

## ESKOLA LAIKO ETA MISTOAREN ALDE

Ikasleak sexuaren arabera bereiztearen alde dauden pertsonak arrazoi oso desberdinak dituzte, baina gure inguruan dauden ikastetxe bananduak Opus Deiri lotutakoak (formalki ez bada ere) dira. Gai honen inguruko eztabaidan ikastetxe hauen existentzia bera sartuko genuke, baina oraingo honetan hauek jasotzen duten finantzaketaren inguruan soilik ari gara.

Estatuko legeek gai honi buruz esaten dutena argia da, eta horregatik behin baino gehiagotan epaitegietara eraman da kontua. Sententzia batzuk plazaratu dira, azkenak autonomia erkidegoen eskuetan uzten du erabakia. Andaluzian berehala eman dute kontzertuen kontrako legea eta Balearretan eta Katalunian bide beretik joango direla iragarri dute. Errioxan, Valentzian eta Madrilen kontzertuen finantziazioa tinko mantentzeko asmoa azaldu dute.

EAE n, Kataluniako ERC-k jasotako kontrako epaia ezagutu zenean, Hezkuntza Sailak gogo handiak izan arren ez zuela ezer egingo esan zigun; orain, aldeko sententziak daudela, Sailak ez du ezer esan. Lehen Hezkuntzatik aurrera ikasleak eta irakasleak sexuaren arabera banatzen dituen 6 ikastetxe dago, 3.900 ikaslekin.

Joan den otsailaren 2an, prentsa ohar baten bidez STEE-EILASEk eskatu zion Hezkuntza Sailari Hezkuntza Itunen Dekretuaren eraginez (293/87) ituna kentzeko, besteak beste Gipuzkoako Erain eta Eskibel eta Bizkaiko Ayalde eta Munabe ikastetxei –denak Opus Dei itzalpean- ez bait dituzte onartzen ikasleak ikastetxe publiukoetan aplikatzen dituzten irizpideekin.

Nafarroan ezaugarri hauetako hiru itunpeko ikastetxe dago, eta laugarrena sortu nahi dute. Eskola Kontseiluan sortu zen gaia, eta gainontzeko sindikatuei zabaldu genien. Azkenean, STEE-EILASEk, Herrikoa guraso elkartearen federazioarekin eta CCOOekin batera, kanpaina bat hasi du bereizkeria honen aurka eta eskola mistoaren alde, manifestu baten bidez. Ekimen honekin bat egin dute hainbat sindikatuk eta alderdi politikok: ESK, APS, Batzarre, Aralar, Ezker Batua... Eta 2.000 pertsonak baino gehiagok sinatu dute ondorengo web

orriaren bidez, [www.educacionigualitaria.org](http://www.educacionigualitaria.org). Gainera, E.B.k gaia Parlamentura eraman du. Eztabaidak Nafarroako maila gainditu du eta CEAPAK bultzatuta estatu mailako plataforma sortu da non STES konfederakundekoek parte hartzen duten. Heziketa "bereiztuta" defendatzen dutenen arrazoi nagusia da, gizonak eta emakumeak desberdinak garenez, hoberena izango litzatekeela hezkuntza banandua ematea, horrela sexu bakoitzari egokiago degokion trataera emango bailitzaloke eta emaitza akademiko hobeak lortuko lituzkete. Sexuen araberako bereizketari leporatzen dizkiote ustezko emaitza hobeak, ikasleengan egiten duten hautaketa aipatu gabe: ikasle ia denak goi-maila edo ertain-goi mailakoak dira, behar berezirik gabeak...

Eskola mistoa defendatzen dugunok sexuaren araberako bereizketa honi segregatzaile eta baztertzaila deritzogu; gizonak eta emakumeak desberdinak izateak ez du esan nahi gizon-emakumeok gaitasun intelektual ezberdinak ditugunik eta bereiztuta hezitu behar dugunik. Zorionez gure jendartea askotarikoa da. Aniztasuna dago: kulturala, etnikoa, sinismenena, sexuarena, baita sexu orientazioarena eta aukerarena ere. Beraz, defendatzen dugun eskola anitza ere bada, non aniztasun hori guztia mugarik gabe tokia izango bailuke.

Hezitzea ikastea baino gehiago da, errendimendu akademiko handia lortzea baino askoz handiagoa. Heziketak balio behar du afektibitate-garapenerako, komunikatzeko, sozializatzeko... eta estereotiporik ez izateko, neskak eta mutilak elkarren ondoan hazteko, garatzeko eta pertsonak bezala harreman libreak izateko

Gai hauen inguruan hainbat web interesante dago, hurrengo honi begirada ematea gomendatzen dizugu: <http://www.opuslibros.org>

## AZPkoen TXOKOA

Beharra duten emakumeak.

Beharra oso gauza moldakorra da. Gaur ezinbestekoa dirudizuna, bihar ahaztu litzaizuke. Daukazuarekin konforma zaitezke, edota zure auzokideak daukan gauza bera behar izan ahal zenuke. Ezinezkoa lortzeko asmoa izan dezakezu edo eskuragarri duzunarekin goza zenezake. Loteria ez badugu irabazten osasuna eta maitasuna opa diogu elkarri. Azken finean, benetako garrantzia duena da. Goizero bizitzarekin jarraitzeko indar fisikoa izan, egunero animatzen, maitatzen eta laguntzen zaituen lagun maite bat izan, merezi duzulako eta indarra ematen dizulako. Bizitzak ematen dizkigun kolpeak gauza bakoitza bere tokian jartzen dute eta, askotan, beharra gabe bueltatzen ditugu. Benetan ez du merezi hemendik 10 urte barru gertatzen denarekin ez bagara gogoratzen. Gizarteak behar duguna baino gehiago kontsumitzera behartzen gaitu, bizitza, lana edota ahalik eta azkarren joaten behartzen gaituzten baldintzek pertsonen arteko harremanak zailak egiten dituzte. Gutxi da geure artean egoteari dedikatzen diogun denbora. Horregatik, noizean behin, lagunekin egoteko espazio bat erreserbatzea ona da eta, elkarrekin roneko kopa batekin gozatu, posible bada kubatarra. Hau zuentzat da, sindiko lagunak, eta norbait gehiagorentzat.

Maité A.R

### LH: Inor ez da sobratzen

Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmena negoziazio bilera batean AICE oso kezkatuta agertu zen Heziketa Zikloetan, 2008 eta 2012 urteetako plangintzaren ondorioz, emango den murrizketarekin. Haien zentroetako datuak eman ziguten, 23 zentro; hauetatik 19 hitzartuak eta beste 4 hitzartu gabekoak (Beheko koadroan azaltzen dira). 23 zentro hauetatik 20 zentroetan Heziketa zikloak soilik ematen direlarik.

Datu hauen arabera datozen lau urteetan 76 irakasle soberan daudela saldu nahi digute.

Egia bada ere Hezkuntza Sailak Heziketa Zikloak ematen dituzten zentroekiko izan duen plangintza eta politika ezin txarragoa izan direla, bai sare publikoan bai hitzartuan, eta kontuan izanda jendartearen esku lan kualifikatua eskatzen ari den momentuetan, ez da normala Lanbide Heziketako ikasgelak gutxitzea. Departamentu berriak hausnartzea eta neurri egokiak hartzea espero dugu.

Baina beste alde batetik, AICE Patronalak bere sektoreko arazoak beste agente batzuetan delegatzen dituela uste dugu. Gogoratu behar da Lanbide Heziketako mapa eskolarra

Patronalak zuzenean negoziatu duela departamentuarekin, sindikatuen parte hartze gabe. Gainera ez dugu ahaztu behar sindikatuak ez gaituztela kontutan hartzen aurrekontuak negoziatzeko garaian eta aurrekontu hauek eragin zuzena dute langileen lan baldintzetan. Bestela nola azaltzen da Lanbide Heziketa ez agertzea hezkuntza hitzartuaren akordio famatuan?

STEE-EILASek inor ez dela sobratzen pentsatzen du eta, gainontzeko arazoa konpondu behar duela birkolokatzearen bidez, lanaren banaketaren bidez, lanaldiaren murrizketaren bidez...

Erantzun diezaguten galdera batzuk daude:

- Zer egingo dute soberan dauden langileekin (patronalaren arabera)?
- Ez dute aztertzen jardunaldi murriztuaren aukera lan banaketaren formula bezala?
- Zergatik ez dago Lanbide Heziketa hezkuntza hitzartuaren akordioaren barruan?
- Sindikatuak beraien negoziaketan berri izateaz beldur dira?

	Plangintza 2004-8		Murrizketa		Murrizketa %		Plangintza 2008-12	
	HZ	GELAK	HZ	GELAK	HZ	GELAK	HZ	GELAK
Araba	2	4	2	4	-100%	-100%	0	0
Bizkaia	66	132	10	20	-15%	-15%	56	112
Gipuzkoa	39	78	9	18	-23%	-23%	30	60
	107	214	21	42	-20%	-20%	86	172



# KULTURARTEKO HEZKUNTZA

## *Ikastetxe guztietan, ikasle guztiekin, denon artean*

### GELDI DEZAGUN ARRAZAKERIA

#### KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA

Martxoak 21 berri batek gogoraziko digu humanitateak duen erronka garrantzitsuenetako bat: arrazakeriarekin bukatzea. Urte honetan, krisiaren gogorrenaren aurretik estatu espainiarrean gazteen artean egindako inkesta bateko datuak ezagutu ditugu pasa den otsailaren 9an. Sei urtetan 3 puntu igo da alderdi politiko xenofoboiei botoa emango lioken gazteen portzentaia txikia (%14). Hazkunde hau batez ere gazteen artean eman da (15-18 urte).

STEE-EILASTik jende gazteen artean arrazismoaren aurrerakada moztu nahi dugu eta uste dugu ikastetxeetatik gure esfortzuaren ekarpena egin dezakegula eta egin behar dugula talde lan honetan. Errekurtso didaktiko batzuk bildu ditugu gure ikasleekin lana egiten laguntzeko eta baita hausnartzeko ere. Heziketak izana izateko kultura artekoa izan behar du. Zentzu honetan Xavier Lluch en hitzak gureak egiten ditugu:

*“Politikoki zuzenaren erretorikaren arrakastak ez du gauza handirik aldatu gure praktikan (programak, errekurtsoak, materialak,...) eta hezkuntza administrazioak honetan izugarritzko erantzukizuna du.*

*Batzuetan desberdintasuna gutxitasun bezala identifikatzen da (kultur maila baxua) eta gizarte gehiengoa homogeneoa kontsideratzen da beraz aniztasun “gehitua” dagoen tokietan bakarrik hartzen da kontuan eskuartzea, baina gure herrialdean barneko heterogeneitate kultural nabariak existitzen dira, eta kultura artekotasan hezkuntza guztion ardura dela onartu behar da.”*



#### PROPOSAMEN BATZUK

1. **Giza eta kultura** dibertsitatea naturala da eta zertzelada hau hezkuntza arrazoi bihurtzea komeni da.
2. Azterketa kultural osoa egitea, faktore etniko-arrazakoei lotua izan gabe, eredu oso negatiboa eta zeharkakoa bideratzen baita, testuinguru oso konkretuetan konpentsaziora eta egokitzapenera zuzendua.
3. **Dibertsitatea** gizartearentzako abantaila bihurtu, errealitate desiragarria, diskurtso arrazisten *meatxuetako* argudioetatik (demografikoak, lanekoak eta kulturalak) ihes eginez.
4. Pertsonak onartuak eta errekonozituak sentitu daitezten **ziurtatzeko lan egin, identitateari dagokion bizipenak eta adierazpenak natural bihurtu eta ez arazo.**
5. Berdintasunean oinarritutako **erlazioen markoa antolatu, eskubideen bermearekin parte hartu ahal izateko (iritzia ematen, erabakiak hartzen, ardurak hartzen, ...) errespetuarekin kultura guztiak kritikoki aztertu ditzakegulako, baita ere “eskola kultura” deitua izan dena.**
6. **Usteko kultur gatazken alde politikoa nabarmendu, erlazioak hobetzeko modurik onena pertsonen existentzia hobetzea delako.**
7. Kultur gatazken trataeran hezi, **gure kultura etnozentrismoa dela jakitun eta estereotipoen eraiketa interesatua agerraraziz.**

#### BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Gure web orrian aurki dezakezun errekurtso didaktikoen gida bat prestatu dugu.

[www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)

# berriak

## Hiritartasunerako hezkuntzari buruzko TSaren sententzia

Auzitegi gorenak urtarrilaren 28an kaleratu zuen hiritartasunerako hezkuntza gaia beraien seme alabei irakastearen kontra zeuden familiek aurkeztutako kontzientzi eragozpenaren kontrako epaia. Honen arabera LOEa aurrera erabateko dekretuek ez dute oinarriko eskubiderik urratzen. Sententzia errekurrituko duten arren, CCAA desberdinetan emandako sententzia kontraesankorren ondorioz sortutako polemika amaitutzat ematen da.

## Gobernu kontseiluaren erabakiak

Eusko Jaurlaritzatik aterako den gobernu parlamentua deseginda egonik- urtarrila eta otsailean zehar hezkuntza arloko gai garrantzitsuak erregulatzen dituen dekretu pila bat onartu ditu. Berandu iritsi diren dekretuak dira, ikasturtea oso aurrera doanean eta kontsensu nahikorik gabe. Dekretuak Batxilergoak, hizkuntz ikasketenak, hezkuntza sistemaren planifikaziorako irizpideak (eskola maparena) eta itunpeko ikastetxeenak dira. Garrantzitsuena:

- Batxilergoa. Euskara hizkuntza nagusia izango da; 1. mailan 3 edo suspensio gehiago atera ezker errepikatzeko aukera dago 2 edo 3 gairekin, batxilergo 3 urtetan egiteko aukera emanez (Tribunal Gorenaren sententzia bat atera da horren kontra) bakarrik. Erljioa aukeratzen ez dutenek, alternatibarik ez dute jaso beharko.
- Eskola mapa. Administrazioak etxetik gertu dagoen ikastetxean eskainiko du plaza bere titulartasuna kontuan hartu gabe ( publikoa edo itunpekoa) hau da gai gatazkatsua. Gelako ikasle kopurua publikoetan txikiagoa da.
- Pribatuko finantziatorako akordioa. Ez dago argi akordioaren norainokoa ezta gobernu berriaren betebeharrak ere. DBHko eta batxilergoko ratio berriak ezartzen dira eta ikastetxeko tutore eta orientatzaile figurak ordaintzeko 14 € milio aurrakusten dira.

## Agur Tontxu Campos-i

Pasaden martxoaren 1ean ofizialki legealdiari amaiera eman zitzaion, bertan hezkuntza Saila EAren eskuetan egon da. Benetan ez dira izan 4 urte hezkuntza sailean egon diren urteak, 16 baizik, huaetatik 8 urte Oliveriren gidaritzapean eta gero Iztueta eta Campos. Legealdi honetan ezta aurrekoetan ere ez dugu aurrera egin homologazio laboralaren bidean. Beraien lana Eusko Jaurlaritzatik bertatik apurtua izan den arren STEE-EILAs ez da aterako *Kristau Eskola eta Partaide* patronalekin garrantziko akordioak hartuz, sindikatuak entzungor egin dituen sailburuaren defentsan.

## Irakaskuntza publikoaren igoeran 2009an

Dakizueenez, Administrazioak araututako irakaskuntza pribatuetako ikastetxeetan (itunpekoak nahiz itungaberak) lan egiten dugun langileez ezer ez duela jakin nahi esaten duen bitartean, geure lansariak zehazten dituela moduluen igoeraren bidez. Horretarako Administrazio publikoak duen igoera hartzen du erreferentzia gisa. Horrela adostuta ez egon arren, urtarrilaren 1etik %3ko igoera aplikatzen ari dira, beste 0,5 puntu Itzarrira doan bitartean.

